

20 proiektu aukeratu dira markak hautsi dituen Mondragon City Challengerako

Azaroaren 18an Mondragon City Challengeko epaimahai teknikoak finalerako hautagai izango diren 20 proiektuak jakinarazi ditu, inoiz baino proiektu gehiago eta parte hartzaile gehiago izan dituen hirugarren edizioan.

Hautatutako taldeen jatorria hau da: Gipuzkoako 8, Bizkaiko 4, Gipuzkoa-Bizkaiko 1, Mexikoko 4, Kolonbiako 2 eta Tanzaniako 1.

Erakundeak planteatutako erronken artean hauek zeuden:

- Erronka teknologiko-digitala
- Erronka sanitario-soziala
- Erronka energetiko-klimatikoa

Zazpi taldek erronka teknologiko-digitalaren alde egin dute, beste 7k sanitario-sozialaren alde eta gainerako 6ek energetiko-klimatikoaren alde.

Hautatutako 20 taldeek beren enpresa proiektu kooperatiboa garatu beharko dute orain, Mondragon City Challengeren webgunean dagoen Gidan oinarrituta.

Lana garatzeko, talde bakoitzak ASEKoopeko eta Arizmendiarrietaren Lagunak Elkarteko tutore bat izango du, proiektu kooperatiboak kudeatzen esperientzia emango dietenak. Gure Elkartek 11 tutore jarri ditu antolakuntzaren esku.

Datorren ostegunean, azaroak 21, 20 taldeekin online formazioa egingo da, eta hor tutoreak ezagutuko dituzte eta eskainiko dieten laguntza lana azalduko zaie, baita prozesu osoa zehaztu ere, lanak modurik egokienean egin ditzaten.

Egun horretatik 2025eko otsailaren 17ra arte, amaierako dokumentua aurkezteko proiektuak landu beharko dituzte, zeina epaimahai profesionalak aztertuko baitu, Mondragon City Challengeren hirugarren edizio honetako finalistak izango diren sei proiektuak izendatzeko; epai hori 2025eko martxoaren 6an jakinaraziko da.

Sei talde finalistek egun horretatik 2025eko apirilaren 6ra arte izango dute azken defentsa prestatzeko, 2025eko apirilaren 10ean Arrasateko Amaia Antzokian aurkezteko. Bukaerako ekitaldian hiru irabazleak izendatuko dira, eta sariak hauek izango dira, Kanadara bidaia, 19 eta 24 urte arteko taldearentzat, Parisera bidaia, 16 eta 18 urte artekoentzat, eta 800 euro proiekturik originalenarentzat.

Azken ekitaldiaren atarian sailkatutako 20 taldeek hainbat jardueraz gozatuko dute eta, esperientzia aberasteko, elkarrekin biziko dira. Halaber, parte hartzaileek aukera izango dute enpresa kooperatibo baten jarduera bertatik bertara ezagutzeko, eta bazkideen arteko berdintasun eta ekitate printzipioaren araberako kudeaketa demokratikoaren berezitasunetatik ikasteko. Talde bakoitzak bisita egingo du aurten enpresa mentore izan direnetako batera: Laboral Kutxa, Eika, Danobatgroup, Onnera Group, ISEA, Rural Kutxa eta LKS Krea.